accesogroup

06/03/07 BERRIA
GUIPUZCOA

Prensa: Diaria
Tirada: Sin datos OJD
Difusión: Sin datos OJD
Cód 12297721

Documento: 1/1
Impresión: Blanco y Negro
Sección:

Gasteizen, oraindik, arteak sosik ez

Gasteizko Udalak diruaren %2 artelanak erosteko erabakia ez duela bete kritikatu dute hiriko artistek

EDURNE BEGIRISTAIN
Gasteiz

«Gasteizko politikariak utzikeriaz jokatzen ari dira arteari dagokionez. Sorkuntza den edozer gauzari burua moztu egiten diote». Kritika zorrotzak egin dizkiote Gasteizko artistek hiriko udal batzarrari. Izan ere, 1999an hirigintza obretara bideratuko zen aurrekontuaren %2 artelanak erosteko erabiltzea erabaki zuen, aho batez, Gasteizko Udalbatzak. Zortzi urte eta gero, baina, dirutza pilatu du Udalak: sei milioi eurotik gora. Dirutza hori nola gastatu «jakin ez», edo besterik gabe «ezin gastatu» duela argudiatuta, datorren legealdirako utzi du haren erabilera Gasteizko Udalak.

Polemika hasi zenetik aurrez aurre egon dira udal gobernua eta Gasteizko artisten kolektiboa. Bere garaian Amarica plataformak egin zuen moduan, eztabaida mahai gainean jarri du Rodriguez Fundazioak, kultura garaikidearekin eta euskarri berriekin lan egiten duen arte kolektiboak. Hartarako, eztabaida irekia antolatu zuen atzo, Zuloa Irudian, Gasteizko artistekin eta erakundeetako arduradunekin hausnarketa burutzeko. Arte publikoan egitasmo ausartak eta aitzindariak abiatu dituzten bi aditu gonbidatu zituzten mahai-ingurura: Jorge Diez *Madrid Abierto* egitasmoaren zuzendaria, eta Ramon Parramon *Idensitat* proiektuko burua.

Arte objektuala Bartzelonan, eta arte plastikoa Madrilen. Biek ala biek erakundeen babesa eta diru laguntzak jasotzen dituzte artista garaikideen lanak kalean paratzeko. Gasteizen, ordea, «arte abangoardistarako» bideratutako dirua gordeta dago, eta arte publikorik apenas ikus daiteke karriketan. Hiriko artisten ustetan, Arabako arte garaikidearen egoera «penagarria» da inguruko lurraldeekin alderatuta.

Arazo horri konponbideak bilatzeko garaia badela iritzi dioté hiriko artista gehienek, eta horretaz hausnartzeko «diruaren %2 nahikoa» litzatekeela uste dute; hau da, haien aburuz, dirua bainoago, ideien elkar trukea mahai gainean jartzea da garrantzitsuena une honetan.

Natxo Rodriguez (eskuinean) eta mahai-inguruan parte hartu zuten beste hainbat eragile atzean. JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

POLITIKARIEI KRITIKA. Mintxo Cemillan artistak gogor kritikatu zuen artelanak erosteko aurrekontuaren %2 bideratzea jasotzen duen araua oraindik ez dela abian jarri, eta argi adierazi atzean «arrazoi ekonomikoak era politikoak» daudela. Alabaina, autokritika ere egin zuten: «Artistok ez gara gai izan elkarren indarrak batu eta Udalari proposamen adostu bat egin ahal izateko». Haren aburuz, «ongi egituratutako» proposamena aurkeztuz gero, artisten nahiak kontuan hartuko dituzte alderdietako ordezkariek.

> «Artistok ez gara gai izan elkarren indarrak batu eta Udalari proposamen adostu bat egin ahal izateko»
>
> MINTXO CEMILLAN
> ARTISTA

> «Sakoneko eztabaida eta hausnarketa behar dira, eta horregatik utzi da erabakia datorren legealdirako»
>
> ENRIQUE RUIZ DE GORDOA
> GASTEIZKO UDALEKO KULTURA ZUZENDARIA

> «Gasteizek konplexua dauka, arriskatzeari uko egiten dio eta hori sormenaren aurka doa»
>
> JUNCAL BALLESTER
> ARTISTA

Jorge Diez eta Ramon Parramonek bat egin zuten ideia horrekin. Gasteizko Udalbatzak onartutako araua «eredugarritzat» jo zuen artista katalanak, baina faltan bota zuen artistak antolatzen hastea, gutxieneko «berme» batzuekin eskaerak egiten hasteko. Era berean, hiriko artista guztien arteko adostasuna behar-beharrezkotzat jo zuen Diezek, diruaren erabilera egokia exijitzen hasteko.

Juncal Ballestin artista haratago joan zen, eta politikariek sormen lanaz deus ez dakitela kritikatu zuen. «Gasteizek konplexua dauka, arriskatzeari uko egiten dio eta jarrera hori sormenaren aurka doa». Politikariei «sormen eza» leporatu zien, arte sorkuntzarekin zerikusia duen edozer gauzari «burua mozten» diotelako alderdi batzuen eta besteen artean.

Politikariei kritika egin bai, baina proposamen zehatzak egiteko erantzukizuna ere badute artistek. Madrilgo edota Bartzelonako esperientziek erakutsi duten modura, artistek «udalerriaren kudeaketa eraldatzen» lagundu dezaketela iritzi dio Imanol Marrodanek. Gasteizen, esaterako, udalean hiriko artistek osatutako Batzorde Teknikoa eratu beharko litzatekeela uste du, hirigintzan, hezkuntzan, edota kulturan sormena lantzeko.

ARTISTARI «BELDURRA». Javier Otaola auzokideen defendatzailearen irudiko, ordea, auzi horren guztiaren gakoa politikariek artistei dieten «beldurrean» datza. Haren esanetan, politikariek uste dute artista pertsona «apetatsuak eta zailak» direla, eta sekula ez dutela asmatuko egiten dizkieten proposamenekin. Agintarien «izuei» amaiera eman eta harreman horrekin «apurtu» behar dela iritzi dio Otaolak. Hartarako, «ekimen eraikitzaileak» mahai gainean jartzeko deia egin zien hiriko artistei.

Enrique Ruiz de Gordoa Udaleko kultura saileko zuzendariak udalbatzarraren adostasun ezari egotzi zion oraindik erabakirik hartu ez izana aurrekontuaren %2 artelanei bideratzeko. «Sakoneko eztabaida eta hausnarketa behar dira, eta horregatik utzi da erabakia datorren legealdirako. Artean, politikarien arteko adostasuna ez ezik, herritarren iritzia ere kontuan hartu behar baita».